

HITZ BITAN

IMMIGRAZIOA. Gaur hasi eta maiatza bitartean

Immigrazioak eragin ditzakeen «beldurrez» mintegiak antolatu ditu SOS-Arrazakeriak-ek

Erredakzioa | DONOSTIA

SOS-Arrazakeriak eta Muga elkarrekin jardunaldiak antolatu dituzte, Donostian, «immigrazioak egonkortutako gizarteetan eragin ditzakeen beldurren inguruan». *Immigrazioa. Gure beldurrak eta segurtasun ezak* izenburupean egingo dira. Hala, bost adituk hitzaldi bana eskainiko dute Koldo Mitxelena Kulturunean, eta hurrengo egunean mintegia egingo dute bezperan jorratutako gaia hizpide hartuz. Hitzaldiak irekiak dira, baina mintegietan parte hartzeko izena eman behar da.

Lehen hitzaldia gaur izango da, 19:30ean. Daniel Wagman soziologoak eskainiko du, eta «etorkinen kriminalizazioa» eta

Espainiako Gobernua garatzen ari den «herritarren segurtasunerako politika» izango du hizpide, besteak beste. Bihar mintegia egingo da.

Hurrengo hitzaldia eta mintegia Laurent Bonelli ikertzailearen eskutik etorriko dira, otsailaren 21 eta 22an. Frantziako kasua aztertuko du. Martxoaren 21 eta 22an, berriz, etorkinek osatutako gutxiengoaren onarpena hartuko izango du hizpide Ignasi Alvarez idazle eta kazetariak. Apirilaren 11 eta 12an Cristina Garaizabal psikologoak prostituzioa eta immigrazioa gaia landuko du. Azkenik, maiatzaren 16 eta 17an, Xabier Aierdi EHUKo irakasleak «etnizitatearen» gaia landuko du.



Inguma datu baseak 13.900 bisita izan zituen iaz

Euskal komunitate zientifikoaren Inguma datu-basea orain dela hiru urte sortu zuen Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), eta Interneten ipini zuen (www.inguma.org). Denbora horretan asko eta asko izan dira euskarazko oinarriko informazio espezializatuaren bila Inguma web orria bisitatu dutenak. 2002an, adibidez, 13.900 izan

ziren bisitak, aurreko urtean baino %98 gehiago. Bisitari gehiago erakarri guran, web orria berritu du UEUK, bilaketak errazteko. Datu basean autoren agiriaren berri ematen da, eta haiekin harremanetan jartzeko modua. Argazkian, Gotzon Lobera, Xabier Isasi eta Karmele Artetxe ageri dira, atzoko aurkezpenean.

UNIBERTSITATEA

«Zinpeko guardia baten lekukotza soilean oinarrituta» gazte bat epaitzea salatu du IAK

Bilboko Auzitegiak Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikasle bat epaitu zuen atzo; Ikasle Abeitzaletik (IA) salatu dutenez, «Prosetecnisako zinpeko guardia baten lekukotza soilean oinarrituta». Mehatxu delitua leporatzen diote gazteari. IAK prentsaurrekoa eskaini zuen gaiaren inguruan, eta era berean, azken hila-beteotan EHUk eta NUPEk dararmaten «politika errepresiboa» salatu zuten. Bestalde, Unibertsitate Lege Organikoaren (LOU) inposaketa ere hizpide izan zuten. Azkenik, Manuel Montero EHUKo errektorearen taldearen eta Anjeles Iztuetak zuzentzen duen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arteko eztabaida, «joko zikinaren eta diru publikoen lapurretaren adibide» dela salatu zuten.

ATXILOKETAK

Sei adin txikiko atxilotu ditu Ertzaintzak, auto bat lapurtu eta zuhurtziarik gabe gidatzeagatik

12 eta 16 urte bitarteko sei adin txikiko atxilotu zituen atzo goizaldean Zornotzan, auto bat lapurtu eta zuhurtziarik gabe gidatzeagatik. Ertzaintzak informatu zuenez, zenbait agentek ikusi zuten auto bat maniobra arraroak egiten, eta haren atzean abiatu zirenean, ihes egin zuten. Errebolta batean autoa bidetik irten zen, eta babeserako hesi baten aurka jo zuen, N-634 errepidean, Galdakaon. Sei adin txikikoak aske geratu ziren Poliziak diligenza guztiak bukatu ostean. Seietatik lauk lapurreta aurrekariak dituzte, Ertzaintzak informatu duenez.

ISTRIPUAK

Gizonezko bat hil da Bergaran furgoneta batek eta kamioi batek elkar jo zuten istripuan

Lagun bat hil zen atzo Bergaran, furgoneta batek eta kamioi batek elkar jo zuten istripu batean. Istripua GI-627 errepidean izan zen, Bergarako San Prudentzioko bidegurutzean. Ertzaintza ikertzen ari da zer dela-eta jo zuten elkar furgonetak eta kamioiak. Beste auto batek ere jo zuen kamioiaren eta furgoneta-aren aurka. Furgonetako gidaria ibilgailuaren barruan geratu zen, eta osasun zerbitzuetako kideek barrutik atera behar izan zuten, harrapatuta baitzegoen. Kanpoan, hilda zegoela baieztatu zuten. Kamioiko gidaria zaurituta eraman zuten Mendaroko ospitalera. Bestalde, N-1 errepidean izandako istripuan bi pertsona zauritu ziren atzo, Armiñon parean, auto bat iraulita.

INGURUMENA

Barakaldoko hainbat bizilagun ondoezik egon dira Castaños ibaian izandako isurketa batengatik

Barakaldoko Zubitxeta auzoko hainbat bizilagunek medikuen laguntza behar izan zuten joan den asteartean, Castaños ibaian izandako produktu kutsagarri baten isurketagatik. Hain zuzen ere, zorabioak eta arnasteko arazoak izan zituzten Barakaldoko bizilagunek. Zubitxetako bizilagunek usain sarkor bat sumatu zuten ibaian, eta udaltzaiei hots egin zieten. Haiek Eusko Jaurlaritzari ohartarazi zioten, eta ibaian analisiak egin ostean, 2.000 edo 3.000 litroko sileno isurketa gertatu zela ikusi ahal izan zuten. Sileno pintura eta disolbatzaileak egiteko erabiltzen den produktu bat da. Orain ikertzen ari dira zeinek egin duen isurketa.

LAPURRETAK

Bost lagun atxilotu dituzte Donostian, ezkon-jantziak denda batean lapurtzen saiatzeagatik

Bost lagun atxilotu zituzten atzo Donostiako ezkon-jantziak denda batean, lapurtzen saiatzeagatik, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak jakinarazi zuenez. Gertaerak goizaldeko 03:40an izan ziren Donostiako erdiguneko kale batean. Ertzainek bi gizon ikusi zituzten behatze lanetan bezala. Hurrengo kalean beste bat ikusi zuten, egoera berean. Ertzainak aztertzen hasi ziren egoera, eta ikusi zuten beste gizon bat zegoela kristala puskatuta zegoen denda baten parean. Korrika ekin zioten, baina Ertzaintzak, hainbat patruilaren bidez, denak atxilotu zituen.



J. Bengoa

MUSIKARENTZAT, BIZITZA BAT

Boulevardeko arkupeak, 20
Tel.: 943 42 37 03-4 - Donostia

- | | |
|-----------------|--------------------|
| □ PIANOAK | □ AUKERAKO PIANOAK |
| □ ORGANOAK | □ MEGAFONIA |
| □ AKORDEOIAK | □ GOI-FIDELITATEA |
| □ KOMUNIKAZIOAK | □ SOINUA-ALOKAIRUA |



Kultura Sailak diruz
lagundutako egunkaria